

PSIKOLOGIA FAMILIAN ***Orientabide didaktikoak***

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia: 2007/03/21
Lege-gordailua: B:16699-2006



TIBIDABO EDICIONES-K, S.A.

HELBURUAK

Familia da gure gizarteko oinarrizko egituretako bat. Gaur egun, hainbat eta hainbat aldaketa sortzen ari dira gizartean eta horiek, berriz, aldatu egiten dituzte gizarteko egiturak. Egungo familiaz hitz egiten dugunean, ezin ditugu aurreko belaunaldien erreferentziak oinarritzat hartu; izan ere, familiaren egungo kontzeptua asko aldatu da urte batzuetatik hona. Alde horretatik, eta gai horri buruz gida eta erreferentzia argirik ez dugula kontuan harturik, hain aldakorra eta konplexua den gai honi heldu nahi diogu lan honekin.

Familiaren harreman-sistema konplexu horretan eragina duten komunikazio-dinamiken eta -mekanismoen berri ematea da lan honen helburuetako bat. Familiaren egituraz edo osaketaz gain, tartean dauden harremanetarako transakzio-elementu guztiak barne hartzen dituzte mekanismo horiek. Alde horretatik, lan honetan harremanekin eta trukearekin lotutako alderdiak aztertuko ditu hein handi batean.

Bestalde, familia-sistemen antolakuntza-alderdien oinarriak ere ezagutarazi nahi dira lan honen bidez. Antolakuntza –funtzionamendu- eta sostengu-modu gisa ulertua– egituraren, rolen, hierarkien eta abarren oinarrian dago. Alderdi horiek guztiak hainbat gaitan eta ataletan landuko dira, betiere egungo familien gizarte- eta kultura-ingurua oinarri hartuta.

Lan honen eduki orokorren bidez, familia-dinamikak ezagutzeko tresna baliagarria eskaini nahi zaie familiekin lanean diharduten profesionalei –psikologoei, gizarte-laguntzaileei eta abarri–, ezagutza horiek duten aplikazio praktikoa kontuan hartuz. Halaber, tresna hori baliagarria izan daiteke gurasoentzat ere, krisialdian sor daitezkeen arazoei erantzuteko bideak proposatu eta familia-bizitzarekin lotutako gai edo kontzeptu jakinak ulertzen laguntzen baitu.

EGITURA

Lan hau familiekin lanean diharduten profesional guztientzat egina da, edozein izanda ere bakoitzaren lan-arloa:

- Gizarte Zerbitzuak: psikologoak, gizarte-laguntzaileak, familia-langileak, hezitzaileak...
- Osasun Zerbitzuak: sendagileak, erizainak, psikologoak
- Hezkuntza Zerbitzuak: maisu/maistrak, irakasleak, tutoreak eta hezitzaileak, oro har.

Lan honek hizkuntza edo eduki teknikorik erabiltzen ez duenez, gurasoentzat ere baliagarria izan daiteke, familia-egituretan eragina duten mekanismoak eta dinamikak ezagutuz horiek hobetzen edo berariazko egoeretan horiek aldatzen ikas dezaten.

Honako hauek dira lan honen osagaiak:

Liburu bat: gai nagusiak lau kapitulu nagusitan banatzen ditu. Kapitulu bakoitza 9 gaiz dago osatuta. Gai bakoitzak hiru ataletan banatzen ditu edukiak:

- Gaiaren planteamendua
- Erne egoteko arrazoiak
- Aholku praktikoak

Egitura-mota hori lagungarria da edukiak praktikotasunez erabiltzeko, gai bakoitza aipatutako edozein ataletik lantzeko aukera ematen baitu.

Lau DVD: horietako bakoitza liburuko lau kapituluetako bati dagokio, hau da:

- Prozesu psikologikoak familian
- Familia eta gizarte-ingurunea
- Familiako krisi-egoerak
- Egoera berezietako familiak

DVDek liburuko gaien egitura berbera dute; hau da, planteamendua, erne egoteko arrazoiak eta aholku praktikoak.

Liburuaren egileak azaldu egiten ditu gai guztiak eta, aldi berean, egoera bakoitza antzestu egiten da aktoreen bidez. Horrela, landutako gaiak irudikatzeko aukera izango du irakurleak.

Ikus-entzunezko baliabide horrek lagundu egingo dio irakurle-ikusleari teorikoki azaldutako edukiak ulertzen. Gainera, horrela atseginagoa izango da edukiak lantzea eta, banaka aritzeaz gain, taldeka aritzeko aukera ere ematen du.

EDUKIAK

Lana lau kapitulutan egituratzen da eta horiek familia-prozesuei buruzko hainbat gai biltzen dituzte. Kapitulu bakoitzean gai-talde jakin bat lantzen da.

A- Prozesu psikologikoak familian

Familia banakoz osatutako taldea da, eta banako horiek dinamika-eta harreman-mota jakinak eratzen dituzte, norberaren prozesu psikologikoetan oinarrituz.

Kapitulu horretan familiaren barne-dinamika aztertuko da, familiaren barruko harremanak, funtzioak eta rolak kontuan hartuz.

Kapituluaren helburua familiarteko funtzionamendua arautzen duten oinarritzko printzipioak ezartzea da, familia ezaugarri propioak dituen sistema gisa ulertuta.

B- Familia eta gizarte-ingurunea

Familia ez da bakartuta bizi, ingurune jakin batean baizik. Ingurune horrek eragina du familian.

Kapitulu honetan familiaren ingurunea aztertzen da, familiaren eta gizartearen arteko etengabeko trukea eta elkarrenganako eragina azpimarratuz. Alde horretatik, oinarrizko gizarte-eredu gisa aztertzen dira kultura-testuinguruak.

C- Krisi-egoerak

Familiak eta familietako kideak garatu eta bilakatu egiten dira denboraren poderioz. Familia orok bizi dituen krisi-egoerak garapen horrekin batera gerta daitezke batzuetan; beste batzuetan, berriz, ez dira aldi berean gertatzen.

Kapitulu horretan familia-zikloaren bilakaerak berak eragin ditzakeen krisi-egoerak lantzen dira; esaterako, seme-alaben nerabetasuna edo familiatik kanpo sortutako egoeren ondoriozko krisiak (gaixotasunak, heriotzak).

D- Egoera berezietako familiak

Gure gizartean, familia erakunde egonkorra izan da: aldatzen ez den erakundea, alegia. Gaur egun, ordea, gero eta sarriago sortzen dira familia-osaketa desberdinak; hau da, ohiko familia-kontzeptutik aldentutako ereduak. Horixe da berriz eraturako familien edo guraso bakarreko familien kasuan, besteak beste.

Kapitulu horretan klasikoa ez den beste egitura bateko familiak aztertzen dira, baita krisi-egoera iraunkorrean bizi diren familiak ere: besteak beste, etorkinen familiak edo indarkeria-egoerak bizitzen dituzten familiak.

EDUKIEN SEGIDA

Kapitululu bakoitzak bederatzi gai lantzen ditu, honako eskema honi jarraiki:

- Gaiaren planteamendua
- Erne egoteko arrazoiak
- Aholku praktikoak

A.-Familien prozesu psikologikoak eta familia-funtzioak

Familiaren abiapuntua: bikotea
Gurasoak lokarri gisa
Seme-alaben heziketa
Neba-arrebak
Harremanak eta arauak
Familiarteko bizi-zikloa eta garapena
Banakoa eta familiarteko rolak
Baloreen transmisioa
Sexuen rolak

B.-Familia eta gizarte-ingurunea

Banakoan eta familien gizarteratze-prozesua
Gizarte-baloreak
Gurasoen errealizazio profesionala
Gurasoen lana eta seme-alabak zaintzea
Seme-alaben lanbidea aukeratzea
Familia hedatuarekiko harreman
Aisialdiaren erabilera
Eskolarekiko harremana
Familiarteko errituak eta ospakizunak

C.-Familiako krisi-egoerak

Adostasunik eza bikotekideen artean
Bikote-krisia eta banatzea
Dibortzioa eta dibortzioaren faseak
Familia eta harremanak berrosatzea
Seme-alaben jaiotza
Seme-alaben nerabezaroa eta independentzia
Aitona-amonen zahartzaroa

Gaixotasun kronikoa edo ezintasuna
Familiartekoren baten heriotza

D.-Egoera berezietako familiak

Familia tradizionalak
Berriz osatutako familiak
Aitaordeak eta amaordeak
Guraso bakarreko familiak
Adopziozko seme-alabak dituzten familiak
Kultura arteko familiak
Emigrazio-prozesuan dauden familiak
Familiak eta tratu txarrak
Homosexualen osatutako familiak

GAIK: ORIENTABIDE DIDAKTIKOAK

A.-Familien prozesu psikologikoak eta familia-funtzioak

1. gaia

Senar-emazteen funtzioen analisia.

1. Familiaren abiapuntua: bikotea

Familia bat sortzeko lehen pausoa bikotea osatzea da; familia-gune desberdinetako bi pertsonen osatutako bikotea, hain zuzen.

Bikotea hautatzeko eta osatzeko modua erabakigarria izango da, horren gainean eraikiko baitira familiaren gainerako egitura guztiak.

Gai honetan hasierako une horietan sor daitezkeen arazoak aztertuko dira. Horrez gain, honako alderdi hauetan lagungarriak izan daitezkeen jarraibide batzuk ere eskaintzen ditu:

- Jatorrizko familiak
- Ingurunearekiko harremanak

-Senar-emazteen/gurasoen sistemaren bereizketa
-Bikotekideen senar-emazte eta guraso bezala dituzten funtzioak orekatzea.

2. eta 3. gaiak

Gurasoen funtzioen azterketa.

2. Gurasoak lokarri gisa

Gai honek gurasoen funtzioak aztertzen ditu, loturak eta seme-alabekiko onespena oinarri hartuta eta haiekiko babes-funtzioak kontuan hartuz. Bikote gehienentzat, gurasotasunak finkatu egiten du familia erabat. Semearen edo alabaren jaiotza bikotekideen bizitzako erronkarik garrantzitsuenetakoa izaten da.

Gai honetan, gurasoen eta seme-alaben arteko oinarri-oinarrizko harremanak lantzen dira; esaterako, lotura-harremanak. Lotura hori semea edo alaba jaiotzen den unean sortu eta denborarekin garatu eta bilakatu egiten da, harreman afektiboak eta onespren-harremanak sortuz.

Gai honetan alderdi horiekin lotutako zailtasun nagusiak mahaigaineratzen dira:

- Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanaren hasiera
- Denboran barrena lantzen edo sortzen dira
- Jatorrizko familien lotura-harremanekin zerikusia dute

3. Seme-alaben heziketa

Gai honetan, familiaren berezko eta funtsezko beste funtzio bat lantzen da; heziketa, alegia. Ikaskuntza, harremana eta ereduaren imitazioa izango dira gai horri heltzeko funtsezko jarraibideak.

Afektuarekin eta babesarekin lotuta egoteaz gain, gurasoen funtzioak bi multzo handietan bereizten dira:

- Funtzio arautzaileak
 - Mugak
 - Baloreak
 - Eskakizunak....

- Funtzio gizarteratzaileak
 - Sozialitateak
 - Baloreak
 - Partekatzea/errespetatzea...

Gai honetan zenbait gomendio ematen dira egungo familietan sor daitezkeen zailtasunei aurre egiteko.

4. gaia

Neba-arreben azterketa, harreman-unitate gisa.

4. Neba-arrebak

Gai honetan, neba-arrebak aztertuko dira, haiek ere gurasoengandik bereizitako talde bat osatzen baitute, ezaugarri, funtzio eta harreman propioekin.

Sistema horretan garatzen diren funtzioak lantzen dira:

- Partekatzea
- Lehiatzea
- Negoziatzea

Neba-arreben ezaugarri propioak ere aztertzen dira:

- Jaiotza-ordena, adin-desberdintasuna eta adin-aldea
- Generoa

Neba-arreben arteko harremanetan sor litezkeen zailtasunei dagokienez, “jelosia” aztertzen da, harreman-mota horren oinarriko sentimendu eta -batzuetan- jokabide gisa. Gai horri buruzko gomendioak ere ematen dira. Beste neba-arrebentzako guraso-lanak egiten dituzten neba-arrebak ere aipatzen dira, baita horrelako egonek eragiten dituzten disfuntzioak ere.

5., 6., 7., 8. eta 9. gaiak

Familiaren elkarrekintzarekin lotutako alderdiak aztertzen dituzte, baita horien garapenarekin eta belaunaldi arteko transmisioarekin lotutako alderdiak ere.

5. Harremanak eta arauak

Familiaren egiturazko alderdiak eta familiaren antolakuntza eta funtzionamendua arautzen duten mekanismoak aztertzen dira, baita familiako kideen arteko komunikazio-bideak eta harremanak ere.

Familia elkarrekintza-sistema gisa erregulatzen duten mekanismoek familiaren arauak –bai esplizituak, bai inplizituak– eratzen dituzte.

Familia-estiloek eta kultura-joerek familia bakoitzaren arau-multzoen barruan daude. Arau horiek sinismen-sistemen eta kulturaren murgilduta daude.

Alderdi horiek guztiak disfuntzioaren ikuspegitik ere aztertzen ditu gai honek, disfuntziorik nabarmenenak azpimarratuz:

- Araurik eza - kaotizazioa
- Gehiegizko arauak – zorrotasuna

6. Familiarteko bizi-zikloa eta garapena

Gai honetan denboran barrena familiak bizitzen duen bilakaera lantzen da eta, horrenbestez, bilakaerarekin eta egokitzapenarekin lotutako alderdiak mahaigaineratzen dira.

Bilakaerarekin lotutako alderdiei dagokienez, familiaren bizi-zikloak dituen etapak aztertzen dira, banako bizi-zikloaren etapen aurrean:

- Bikotea osatzea
 - Seme-alaben jaiotza
 - Seme-alaben eskola-garaia
 - Nerabezaroa

- Seme-alaben emantzipazioa
- Zahartzaroa eta habi hutsa

Familia-zikloaren egokitzapen-alderdiei dagokienez, honako mekanismo hauek aztertzen dira:

- Orekarako lagungarriak edo morfostatikoak
- Aldaketarako lagungarriak edo morfogenetikoak.

Gai honetan familia-mailan eta banako-mailan sor daitezkeen arazoak ere lantzen dira, egokitzapen- eta bilakaera-alderdiak behar bezala garatzen ez direnean.

7. Banakoa eta familiarteko rolak

Gai honetan familia-sistemen ezaugarriak aztertzen dira, kideen jokabideak finkatzen dituzten “rolak” egokitzeari dagokionez. Rol edo etiketa horiek familiartean egokitzen eta onartzen dira, familiarren berezko ezaugarri gisa.

Banakoen nortasunaren eta familiartean bakoitzak dituen berariazko jokabideen –famiario kide izatearen adierazgarri– arteko bereizketa egiten da.

Familia bakoitzak bere parametroen eta sinismenen arabera egokitzen ditu rolak kideen artean. Familiarteko funtzio horiekin lotutako zailtasunak honako atal hauetan landuko dira:

- Egokitutako rolen malgutasuna/zorroztasuna.
- Gurasoak, imitatzeko eredu gisa.

8. Baloreen transmisioa

Familiak transmititzen ditu, nagusiki, mota guztietako baloreak. Beste erakunde batzuek ere –eskolak, auzoak, adiskideek– arlo horretan eragina badute ere, familiak sinismenen transmisio-bide nagusi izaten jarraitzen du, baita alderdi moralen eta kultura alderdien –baloreen– transmisio-bide nagusi ere.

Baloreak honako eragile hauen bidez ikasten dira:

- Familia-ereduak
- Ingurunea
- Kultura

Egun hain garrantzitsua den gai honek ez bai ugari sortzen jarraitzen du gizartean eta familian. Gurasoek seme-alabei adierazten dietenaren eta haien aurrean agertzen duten jokabidearen artean sortutako kontraesanak dira gai honetako oinarria. Bestalde, gizarte-eta kultura-alderdiek areagotu egiten dituzte zailtasunak. Seme-alabek etxean jasotzen dituzten eredu inkoherenteak bermatu egiten dira gizartean onartutako gizartean onartutako ereduekin: ideia horixe da, hain zuzen, gai honetako lehen aztergaia.

Baloreen transmisioarekin lotutako inkoherentziek edo transmisiorik ezak eragiten dituzten disfuntzioak ere aztertzen dira gai honetan.

9. Sexuen rolak

Gizonen eta emakumeen arteko gizarte-roletan izandako aldaketak azpimarratzen dira gai honetan. Rol-mota horiek familiarteko sinismenetan eta baloreetan daude errotuta. Maskulinitateak, “matxismoak” eta “feminismoak” zerikusi zuzena dute familia-sistemekin lotutako alderdiekin.

Ohiko ereduak ez dira baliagarriak dagoeneko eta gizon-emakumeek erreferente eta eredu berriak bilatu behar dituzte. Bilatze-prozesu horretan, hainbat eta hainbat kontraesan sortzen dira eta funtsezkoa da horiek guztiak familia-ereduetatik lantzea.

- Ereduen eta rolen malgutasuna
- Gurasoen arteko komunikazioa
- Kontzientzia versus berdintasunetikiko eta desberdintasunetikiko errespetua.

Horiexek dira gai honetan garatutako alderdiak.

B – Familia eta gizarte-ingurunea

1. eta 2. gaiak

Gai horietan seme-alaben banakako gizarteratze-prozesua aztertzen da.

1. Banakoen eta familien gizarteratze-prozesua.

Gai honetan familiak ingurunearekin harremanetan jartzeko duen modua aztertzen da. Izan ere, alderdi hori funtsezkoa da seme-alaben gizarteratze-prozesuetan. Oinarri-oinarrizko gizarteratze-gune den aldetik, gizartearekiko jarrerarekin eta jokabidearekin erakusten dizkie familiak seme-alabei besteekin harremanetan jartzeko ereduak.

Familia-estiloak honako bi mutur hauen artekoak izan daitezke:

- Familia itxiegiak, ingurunearekin harremanik ez dutenak.
- Familia irekiegiak, intimitatea zaintzen ez dutenak.

Mutur horien artean askotariko familia-motak era daitezke eta horietako bakoitzak harreman-eredu jakin bat transmititzen du. Seme-alabek beren kideekin garatzen dituzten harremanak gurasoekin duten harremanaren isla izango dira.

Seme-alaben gizarteratzea familia ez den beste sistemetan ere garatzen da –eskola, auzoa, etab.–. Sistema horiek berariazko gai batean landuko dira aurrerago.

2. Gizarte-baloreak

Gizarte-baloreak familia-gunean ere transmititzen dira eta eragin handia dute seme-alaben gizarteratze-prozesuan. Gai honetan, balore horiek aztertuko dira familia-transmisioa oinarri hartuta.

-Pertsonen buruzko baloreak:

- Arraza-desberdintasunak
- Iritzi-desberdintasunak

- Kultura-desberdintasuna
- etab.....

-Ingurumenari buruzko baloreak:

- Ingurunearekiko errespetua
- Gauzekiko errespetua
- etab.....

-Norberaren zaintzari eta osasunari buruzko baloreak:

- Nork bere burua eta osasuna zaintzea.
- Osasun-ohiturak
- Substantzia toxikoen kontsumoa
- etab.....

Horrez gain, seme-alabek bereganatu behar dituzten gizarte-baloreen transmisioa harremanak izateko gaitasunarekin ez dela nahasi behar gogorarazten da gai honetan. Nerabezaroa ere bereziki azpimarratzen da, aldi horretan banakoen oinarrizko soziabilitate-alderdiak agerian geratzen baitira, heldutasunerako bidean.

3., 4. eta 5. gaiak

Gai horietan lanarekin eta alderdi profesionalekin lotutako gaiak lantzen dira.

3. Gurasoen errealizazio profesionala

Egungo gizartean, lanarekin lotutako alderdiak eta alderdi profesionalak oso garrantzitsuak dira pertsonen bizitzan. Gurasorolak asko aldatu dira emakumea lan-munduan sartu zenetik. Aldaketa horiek familiaren antolakuntzari ere nabarmen eragin diote.

Gai honetan gurasoen laneko errealizazioarekin lotutako alderdiak aztertzen dira, baita horrek familia-dinamikan eta seme-alaben hazkuntzan duen eragina ere.

Gurasoek sentitzen duten honako behar hau da gai honen ondorioetako bat: alderdi profesionalak behar bezala mugatzeko eta

profesionalak ez diren beste errealizazio-iturri batzuk bilatzeko beharra, hain zuzen.

4. Gurasoen lana eta seme-alaben zaintza.

Familia ugaritan arazoak sortzen dira lanerako denbora eta etxean seme-alabekin egoteko denbora uztartzeko orduan. Izan ere, horixe da egungo gai nagusietakoa, eragin handia baitu familia gehientsuenetan.

Gai honetan familia ugarik dituzten arazoak aztertzen dira, lanak eta familiak agertutako eskakizun-maila altua dela-eta. Izan ere, bi eremuak bateraezinak izaten dira sarritan.

Hainbat ikuspegitik aztertzen da familia:

- Familia sistema global gisa: gai honek eragina du sistemaren antolakuntzan.
- Bikotea, funtzionamendu propioa duen atal gisa. Batzuetan, funtzio hori desegin egiten da familia-dinamikaren barruan.
- Seme-alabak eta gurasotasuna: egoera horrek eragin handia du horien garapenean

5. Seme-alaben lanbidea aukeratzea

Gai honetan seme-alaben bokazio-alderdiak jorratzen dira, baita bokazio horretan familiak oro har eta, zehazki, gurasoen itxaropenek duten eragina ere.

Gai hau familiarteko harremanen eremu esplizituan eta inplizituan garatzen da, baita gurasoek seme-alaben bokazioetan egiten duten proiektioan ere.

Seme-alaben lanbidea aukeratzeko orduan gurasoek duten eraginak honako ondorio hauek izan ditzake:

- Ikasketak bertan behera uztea
- Okerreko lanbidea aukeratzea
- Bokazioa bertan behera uztea
- Alderdi profesionaletik frustrazioa eta aldentzea

Seme-alabei beren gaitasunak ezagutzen eta aintzakotzat hartzen laguntzea funtsezkoa da alderdi horietan heldutasuna lor dezaten. Seme-alaben etorkizunarekiko gurasoek agertzen duten malgutasuna da haiek gehien behar duten laguntza.

6., 7. eta 8. gaiak

Gai horietan familia-genetik kanpo garatutako gizarteratze-prozesuak aztertzen dira.

6. Familia hedatuekiko harremana

Gai honetan, familia-eremu zabalagoa aztertzen da, baita eremu horrek seme-alaben gizarte-ereduetan duen eragina ere, jatorrizko familiekin beharrezkoak diren mugak kontuan harturik.

Familia hedatua familia-sistemaren gizarte-sarearen atal garrantzitsua da. Familia hedatuetan oso harreman garrantzitsuak garatzen dira: esaterako, aitona-amonekiko harremanak, osaba-izebekiko harremanak edo lehengusu-lehengusinekiko harremanak.

Familia hedatuarekiko harremanean agerian geratzen dira soziabilitatearekin lotutako hainbat alderdi: harreman horietan hurbiltasunarekin eta distantziarekin lotutako alderdiak azaleratzen dira, eta prozesu horiek guztiek eragina dute erreferentziatzko gizarte-ereduan.

Halaber, familia hedatuak laguntza-sarea eskaintzen du familiaren krisialdi nagusietan eta, horrenbestez, erreferentzia garrantzitsua dira soziabilitate-alderdi horien osaketari dagokionez.

7. Aisialdiaren erabilera

Gai honetan aisialdiaren ikuspegitik aztertzen da soziabilitatea, pertsonen bizitzako atal bat den aldetik.

Aisialdiaren erabilera erregulatzen duten bi ardatz nagusi hartzen dira abiapuntutzat:

- Betekizunak eta eginbeharrak nagusi diren familiak.
- Atsegin hartzea eta bizitzaz gozatzea kontuan hartzen duten familiak.

Familiak aisialdiko hainbat ekintza egiten dituzte. Aisialdiaren erabilera okerrarekin edo aisialdirik ezarekin lotutako arazoan ondorioz, seme-alabek galdu egiten dute gizarte-ikaskuntzaren atal garrantzitsu bat.

Besteekin partekatzen eta gozaten jakiteak gurasoengan eta seme-alabengan sortzen duen poza pertsonen gizarte-munduko atal bat da.

8. Eskolarekiko harremana

Gai honetan eskolarekin lotutako alderdiak aztertzen dira, familiaren atzetik eskola baita gizarteratze-gune garrantzitsuena.

Haurrek hainbat gauza ikasten dituzte. Gizarteratzeari dagokionez, honako hauek dira alderdirik garrantzitsuenak:

- Kideekin harremanetan jartzen
- Familiartekoak ez diren helduekin harremanetan jartzen
- Familiartekoa ez den beste gizarte-inguru bateko kide izaten
- Norberarena ez den eremu bat errespetatzen

Familiaren eta eskolaren arteko harremana ez da beti erraza izaten, eta sarritan alde handiak sortzen dira bien artean. Egungo guraso batzuek eskolaren esku uzten dute seme-alaben heziketa; horrela, eskola seme-alaben eremurik garrantzitsuenetakoa bihurtzen da, baina erakunde horrek ezin du inolaz ere gurasoen lana ordezkatu.

Hala ere, eskolek gero eta ahalegin handiagoak egiten dituzte familiengana hurbiltzeko, elkarlanean aritzeko. Gai honetan gurasoen eta eskolaren arteko harremanaren ezaugarriak aztertzen ditu: batzuetan gatazkatsua eta beste batzuetan eraginkorra eta emankorra den harremana, hain zuzen.

9. gaia

Gai honek gizarteratzearekin lotutako kultura-alderdiak lantzen ditu.

9. Familiarteko errituak eta ospakizunak

Errituak familiarteko jokabide-multzoaren osagaietako bat dira eta kideen nortasuna finkatzeaz gain, familiari kultura-testuinguru jakin bat ematen diote. Erritua, beraz, familiarteko gizarteratze-eragileak dira.

Gaia dauden erritu edo ekintza desberdinen bidez garatzen da:

- Familiarteko ospakizunak
- Familiarteko ohiturak
- Bizi-zikloko errituak
- Eguneroko bizitzako errituak

Gizarteratzearen ikuspegitik, errituekiko lotura askotarikoa izan daiteke familiarteko kulturaren. Familia batzuk errituei (propioei eta kultura-errituei) estuegi lotuta egoten dira eta beste batzuk, berriz, ez dute errituekiko inolako loturarik. Alderdi horiek gizarteratze- eta egokitze-prozesuan duten eragina kontuan hartuta, bi familia-mota horiek aztertzen dira aipatutako bi alderdiak aztertu ahal izateko.

C.- Familiako krisi-egoerak

1., 2., 3. eta 4. gaiak

Gai horietan bikotearekin lotutako krisi-egoerak aztertuko dira.

1. Adostasunik eza bikotekideen artean

Gai honetan bikotean sortzen diren arazoak eta gatazkak aztertuko dira, horiek izaten baitira sarritan familiarteko krisien sorburua. Bikotea da familia-funtzionamenduaren ardatza eta, horrenbestez, bikotekideen artean desadostasunak sortzen direnean, horien ondorioak ingurune guztian hautematen dira.

Arlo horretan gehien agertzen diren arazo nagusiak aztertzen dira:

- Maitasuna galtzea
 - Traizioa ezkontza-loturari
 - Konpromisoari eusteko zailtasunak
 - Gatazkak jatorrizko familiarekin
 - Bizikidetzeta-arazoak
- etab.....

Familiak bi modutara parte har dezake gatazka horietan:

- Liskar irekian parte hartuz.
- Ezkutuko liskarretan bitartekari-lana eginez

Gai honen ardatz nagusiak seme-alaben inplikazioa eta familiarteko funtzionamendua izango dira.

2. Krisialdia bikotean eta banatzea

Bikote batek etengabeko gatazkak dituenean, lotura hautsi eta banatzea erabaki dezake. Haustura horrek eragin izugarria izaten du seme-alabengan, horiek ere familiarteko sistemaren barruan baitaude.

Seme-alabei dagokienez:

- Emozioen arloan behar adina arretarik ez dutela jasotzen senti dezakete
- Gatazkaren erdi-erdian daudela senti dezakete

Bikote batek banatzea erabakitzen duen unea bereziki zaila izaten da familiarrentzat. Izan ere, erabaki horrek aldaketa handiak eragin ditzake eta psikopatologian sartu gabe gauzatu behar dira. Alde horretatik, asko azpimarratzen da gai hori seme-alabekin lantzeko modua.

Gai honetan banatze-erabakiarekin lotutako alderdiak aztertzen dira, familiari (oro har) eta seme-alabei (zehazki) ahalik eta kalte gutxien eragingo dieten bideak aurkituz.

3. Dibortzioa eta dibortzioaren faseak

Banatzea erabaki ondoren, bikoteak banaketa fisikoa eta dibortzioa bizitzen ditu.

Gai honetan deslotura-prozesu horren faseak aztertzen dira:

- Hausturaren plangintza
- Bikotekideetako baten bizileku-aldaketa
- Bizikidetzaren banandua
- Dibortzioaren arauak

Fase horietako oinarriko emozioak sufrimendua eta nahasmena dira eta, horietatik abiatuz, elaborazio- eta berrantolaketa-prozesuak hasten dira.

Gai honetan haustura-prozesu horren guztiaren elaborazioa azaltzen da, prozesuaren emozio-mekanismoei jarraiki familia (oro har) kontuan hartuz. Horrez gain, seme-alabengan (batez ere) gerta daitezkeen egonezin-seinale nagusiak ere aztertzen dira, baita horietako bakoitza saihesteko aukera ere.

4 Familia eta harremanak berrosatzea

Banatze-ondoko fasean familia egonkortu eta familiarteko harremanak, antolakuntza eta arauak berrosatu eta berregituratu egin behar dira. Prozesu hori guztia oso konplexua izaten da.

Gai honetan, konplexutasun hori osatzen duten elementu nagusiak aztertzen dira:

- Bikotekide ohiarekiko harremanak
- Dibortzioaren onarpen-maila seme-alaben aldetik
- Dibortzioaren onarpen-maila bikotekide ohien aldetik
- Seme-alaben zaintza- eta bisita-erregimena
- Jatorrizko familiekiko harremana
- Gizarte-harremanak
- Bikote berriak
- Alderdi ekonomikoak
- Bizilekuarekin lotutako alderdiak

Gai honen helburua familiarentzako egonkortasuna lortzeko irtenbideak mahaigaineratzea da etorkizuneko erronkei aurre egiteko gai izan dadin, gurasoen dibortzioak familia-zikloa geldiarazi gabe.

5. eta 6. gaiak

Gai horiek seme-alabekin lotutako krisi-egoerak aztertzen dituzte.

5. Seme-alaben jaiotza

Seme edo alaba baten jaiotza bizitzako unerik onenetakoa da, baita kritikoenetakoa ere. Gai honetan, bikotekideen artean sortzen den krisialdia aztertzen da, guraso izaten hasten diren unean. Batetik, krisialdi hori guraso-funtzioekiko aztertzen da eta, bestetik, ezkontideen funtzioekiko.

Guraso izatearen funtzio berriak honako eginbizun hauek dakartza berekin:

- Bi izatetik hiru izatera igarotzea
- Jatorrizko familien bateratzea, aitona-amonen rolaren bidez
- Antolakuntzaren eta lanen birbanaketa
- Guraso-funtzioak gauzatzen hastea

Bestalde, bikotekideen artean sor daitezkeen zailtasun-egoerak ere lantzen dira gai honetan:

- Erditze-ondoko depresioa
- Sexualitateari berriz ekitea
- Harremanarekin lotutako arazoak
- Bikote-harremanean hirugarren bat sartzea

6. Seme-alaben nerabezaroa eta independentzia

Seme-alaben eskola-garaia epealdi egonkorra izaten da; horren ondoren, ordea, nerabezaroak familiarteko bizi-zikloaren krisialdirik garrantzitsuena dakar berekin:

- Belaunaldi arteko gatazka-epea da. Agindutako guztia zalantzan jarri ohi dute nerabeek.
- Seme-alabak bereizi egiten da familiarekiko eta deslotura-

prozesua hasten da.
-Heldutasunaren hasiera da.

Gai honetan nerabezaroaren arazoak aztertuko dira, prozesuaren ikuspegitik. Epealdi horrek familiaren aldaketa handi baten hasiera ekartzen du: seme-alabak etxetik joatea, alegia. Prozesu horretan familiako kide guztiak daude sartuta, nolabait.

Horrez gain, disfuntzionalitate-zeinu nagusiak azpimarratzen ditu gai honek:

- Agintariekiko etengabeko desobedientzia
- Araurik ez errespetatzea
- Gurasoen etxetik joatea
- Jokabide arriskutsuak (delituzko ekintzak, droga-kontsumoa...)
- Elikadura-arazoak
- etab.....

7. gaia

Gai honetan aitona-amonen zainketak eragiten dituen krisiak aztertzen dira.

7. Aitona-amonen zahartzaroa

Familia ugaritan, seme-alaben nerabezaroa edo seme-alabak etxetik joateko garaia aitona-amonen zahartzaroarekin batera gertatzen dira; hau da, aitona-amonak zaindu behar diren garaiarekin batera. Familiak erronka berri bati egin behar diote aurre egungo gizartean: aitona-amonak zaintzeko erronka, senarra eta emaztea etxetik kanpo lanean ari direla, hain zuzen.

Gai honetan gehiegizko zamarekin lotutako arazoak aztertzen dira familiaren ikuspegi globala oinarri hartuta, une berean eragina duten faktore guztiak kontuan hartuz.

Estresarekin eta horren ondorioekin lotutako arazoak aztertzen dira, baita “zaintzailearen” gehiegizko zamak dakartzan arazoak eta rol hori gauzatzeko aukerak ere.

8. eta 9. gaiak

Gai horietan familietan kanpoko arrazoiengatik sortutako krisiak aztertzen dira.

8. Gaixotasun kronikoa edo ezintasuna

Gaixotasunek eta ezintasunek eragiten dituzte inpakturik eta krisirik gogorrenak familietan, zoriz gertatzen direnez familiarteko sistematik kanpo dauden faktoreak baitira.

Gaixotasun jakin batek familia batean zenbaterainoko eragina izango duen jakiteko, beharrezkoa da gaixoa nor den eta gaixotasuna zein den ikustea.

Pertsona kontuan hartuz, eragina honako faktore hauek mende dago:

- Gaixoak familian dituen funtzioak
- Familian duen rola (aita, ama, semea edo alaba)
- Familiaren bizitza-zikloa

Gaixotasunaren arabera:

- Gaixotasun mota eta pronostikoa
- Ezintasun-maila
- Zaintza- edo ospitaleratze-beharrak

Gai honetan gaixotasunaren eraginak ekar ditzakeen familiarteko disfuntzioak aztertzen dira. Azpisistemak hartzen ditu oinarri gisa (gurasoak, neba-arrebak) eta, horrez gain, krisialdi horrek eragindako psikopatologia-egoerak ere kontuan hartzen ditu.

9. Familiartekoren baten heriotza

Senitartekoren baten heriotzak izugarri eragiten dio sistema guztiari. Egonkortasuna eta oreka galtzean, nolabaiteko erantzuna eman behar zaie heriotzaren ondoko egokitze- eta berrantolatze-epealdiei.

Gai honetan dolua aztertuko da; heriotza esanguratsu batekin

lotutako prozesu emozionalak lantzeko bidea, hain zuzen, bai pertsona bakoitzari dagokionez, bai familia guztiari dagokionez.

Banako bakoitzaren doluaz gain, badira familiarteko dolu-lanak ere: prozesu horietan, atsekabea partekatu eta senitartekoek laguntza eskaintzen diote batak besteari.

Dolu-lanak honako faktore hauen mende daude:

- Hildakoa
- Heriotza-mota
- Heriotzaren arrazoia
- Hildakoaren harremana familiako kide bakoitzarekin

Gai honetan familiarteko berrantolaketa-prozesuak aztertzen dira, baita landu gabeko doluak edo dolu patologikoak ere. Azken horiek psikopatologiaren bidez nola azaleratzen diren ere aztertuko da.

D.- Egoera berezietako familiak

1. gaia

Gai horretan familia tradizional klasikoen alderdirik gatazkatsuenak aztertuko dira.

1. Familia tradizionalak

Gai honek familia tradizionalak edo klasikoek egungo gizartean izaten dituzten krisiak izango ditu aztergai.

Familia-mota horietan, honako alderdi hauekin lotutako krisiak dira nagusi:

- Gizarteko arauak
- Genero-rolak
- Botere-rolak
- Familiaren batasunari eustea etab.

Familia-mota horren arazo nagusiak zorrotasunaren eta, horrenbestez, ikuspegiaren malgutasunik ezaren ondorioz sortzen dira. Krisialdia belaunaldien arteko ulermen-arazoaren bidez sortzen

da batetik eta, bestetik, gatazkak ez onartzeagatik. Familia horien gatazkei ez zaie espreski aurre egiten eta, ondorioz, horiei lotutako hainbat eta hainbat arazo sortzen dira.

Familia-mota horietan kontuan hartu beharreko beste alderdi bat hausturak dira; izan ere, hausturak oso mehatxu handiak izaten dira familia horientzat, ez baitute halakorik onartzen. Ondorioz, horrelako egoera batek ezinegon handia eragin dezake familiarteko kide guztien artean, batzuetan belaunaldiak ere gaindituz.

2. eta 3.gaiak

Gai horietan berriz eraturako familien osaketa aztertzen da.

2. Berriz eraturako familiak

Gaur egun, berriz eraturako familiak gero eta sarriago ikusten dira gizartean: modalitate berriz horrek berezko ezaugarriak ditu.

Gai honetan, familia-mota horren ezaugarriak eta arazo ohikoenak aztertzen dira.

Ezaugarri nagusiak:

- Bikotekide ohiak daude
- Amaordeak eta aitaordeak
- Guraso desberdinetako neba-arrebak eta neba-anaiordeak
- Elkarrekin izandako seme-alabak eta beste bikote batekin izandakoak
- Hainbat aitona-amona

Egoera horrek guztiak konplexutasun handia dakar berekin eta familia berri bat osatzeko unean azaleratzen da, batez ere, konplexutasun hori.

Arazoak ikuspegi desberdinetatik aztertzen dira:

- Bikotea
- Neba-arrebak
- Aurreko familiak
- Jatorrizko familiak

Sortutako arazoak konpontzeko irtenbideak ere mahaigaineratzen ditu gai honek.

3. Aitaordeak eta amaordeak

Gero eta ugariagoa izan arren hainbat eztabaida sortzen dituen guraso-mota jakin bat aztertzen du aurrekoarekin lotutako gai honek: aitaordeak eta amaordeak, alegia. Guraso-mota horren rola oso zaila izaten da, eta horixe izaten da sarritan eztabaidaren sorburua.

Berriz osatutako familia baten gurasoen bikoteek “adiskidetasunaren” eta “gurasotasunaren” arteko funtzioa izaten dute seme-alabekiko. Funtzio horiek modu desberdinetan garatuko dira familia osatzeko unean seme-alabek duten adinaren arabera. Guraso izan gabe guraso izan behar horrek oso arazo garrantzitsuak ekar ditzake berriz osatutako familietan.

Seme-alabek aitaordea edo amaordea onartzea familia-mota horren beste arazo bat izaten da, baita jatorrizko familiaren eta gizarte-ingurunearen onarpena ere. Horrek guztiak oso egoera konplexua osatzen du.

Berriz osatutako familiei buruzko ezaugarri horien guztien ondorioz, oso ohikoa izaten da familia gehienetan arazoak sortzea. Gai honetan hainbat konponbide e proposatzen dira: generikoak izan arren, familietan sortutako arazo gehienetara egokitze modukoak dira aipatutako konponbideak.

4. gaia

Gai horrek guraso bakarreko familiak izango ditu aztergai.

4. Guraso bakarreko familiak

Guraso bakarreko familiak amaz edo aitaz eta seme-alabek osatutakoak izaten dira. Familia-osaketa horiek hainbat arrazoirengatik izaten dira:

- Amaren edo aitaren heriotza
- Semea edo alaba bakarrik izateko erabakia
- Amak edo aitak familia utzi izana

Familia horietan ez da gurasotasunik partekatzen eta hori nahita edo nahi gabe gerta liteke: alderdi hori oso garrantzitsua da harremanei dagokienez eta egoerarekiko egokitzapenari dagokionez.

Gai honetan, guraso bakarreko familietan sortutako arazo ohikoenak aztertzen dira:

- Amaren edo aitaren gehiegizko zama eta estresa
- Aitona-amonak edo familiako beste kide batzuk guraso-lanetan gehiegi sartzea
- Semeren edo alabaren bat guraso-lanetan aritzea
- Familiarteko sekretuak
- Amaren edo aitaren eta seme-alabaren arteko harreman sinbiotikoa
- Sexu-eredurik eza joandako gurasoaren aldetik etab...

Tema 5

Gai honetan adopzioaren gaia lantzen da.

5. Adopziozko seme-alabak dituzten familiak

Adopziozko seme-alabak dituzten familiak asko ugaritu dira. Adoptatutako haurrak beste herrialde edo etnia batekoak izan ohi dira gainera eta, horrenbestez, egun guztion ahotan dagoen gai honek hainbat eztabaida eragiten ditu.

Familia horiek oso egoera zailak bizitzen dituzte batzuetan. Hona hemen arazo horien sorburu nagusiak:

- Seme-alaba biologiakoak izateari uko egitea
 - Guraso izatearekiko itxaropen handiak
 - Aurreko esperientzia zailak bizi izan dituzten haurrak
 - Hizkuntza- eta kultura-desberdintasunak
 - Etnia desberdina
- Etab.

Gai honetan faktore horiek guztiak aztertzen dira, baita seme-alabekiko lotura afektiboarekin eta egokitze-epealdiarekin lotutako alderdiak ere. Analisi hori guztia familiaren ikuspegitik egiten da, eta ez haurren beharren ikuspegitik soilik, gurasoen eta jatorrizko familien beharrak ere kontuan hartuz baizik.

Bestalde, seme-alaben adopzioaren inguruan familiak nola jokatu beharko lukeen ere aholkatzen du gai honek, bi haiei dagokienez, bai inguruneari dagokionez.

6. eta 7. gaiak

Gai horietan kulturartekotasunarekin lotutako familiak aztertuko dira.

6. Kultura arteko familiak

Familia-mota horiek bikotea eta familia osatzea erabakitzen duten kultura desberdinetako banakoz osatuta daude. Kulturartekotasuna gero eta ohikoagoa da gure artean eta arraza eta kultura desberdinetako pertsonen arteko nahasketaren ondorioz egoera hori nabarmenagoa izan da, gainera.

Familia horiek berariazko ezaugarri bereziak dituzte:

- Balore eta sinesmen desberdinak
- Erljio-sinesmen desberdinak
- Genero-rolak
- Seme-alaben heziketa
- Botere-rolak
- etab....

Berariazko alderdi horiek gatazka ugari eragin ditzakete bikotea osatzen den unean behar bezala negoziatzen eta lantzen ez badira.

Gai honek familia-mota horiek aztertzen ditu, ez desberdintasunaren ikuspegitik soilik, familiarteko alderdi unibertsalekin lotutako antzekotasunen ikuspegitik baizik.

7. Immigrazio-prozesuan dauden familiak

Gure jardun profesionalean eta gizartean gero eta etorkin gehiago ikusten ditugu eta, ondorioz, behar-beharrezkoa zaigu horien ezaugarriak ezagutzea.

Gai honetan emigrazioa aztertuko da, ez kultura-desberdintasunen ezaugarri zehatzen ikuspegitik, familia batek beste leku batera emigratzean bizi dituen prozesuen azterketaren ikuspegitik baizik. Egokitze-prozesuez gain, belaunaldiz belaunaldi bizitzen diren prozesuak ere aztertzen dira.

Honako hauek dira emigrazio-prozesu baten faseak:

- Hasierako fasea (deserrotzea eta dolua dira nagusi)
- Lanean eta ikasten hastea
- Ohiturei eta taldeei eustea
- Herrialde berrian jaiotako seme-alabak. Zubi-belaunaldia

Horrez gain, familia-mota horren arazo eta eskari nagusiak ere mahaigaineratzen dira, osasunari, ikaskuntzari, ongizateari eta abarri dagokionez. Familia horiekin lan egiteko, profesionalek beren kulturarekin lotutako hainbat alderdi kontua hartu behar dituzte, eta horiek ere aztertuko dira.

8. gaia

Gai honetan familiarteko indarkeria egoerak aztertuko dira.

8. Familiak eta tratu txarrak

Tratu txarrak bizi dituzten familiak egoera “berezian” dauden familiak ez badira ere, kasu horietan gertatzen dira komunikazio-transakzioei buruzko hurbilketa egin daiteke, baita indarkeriaren esanahiari eta familia horiek jasaten duten sufrimenduari eta gatazkari buruzko hurbilketa ere.

Oso gai zabala eta konplexua denez, familia- eta egoera-mota horien ezaugarri nagusiak aztertuko dira soilik.

Gai honetan bi ikuspegitatik aztertuko dira tratu txarrak:

- Tratu txar psikologikoa
- Tratu txar fisikoa

Tratu txar psikologikoa hain deigarria ez den arren, askoz ere ohikoagoa da. Gai honetan arazo horrekin lotutako hainbat egoera aztertuko dira, baita tratu txar horiek pertsonengan eragiten dituzten ondorio ikaragarriak ere.

Tratu txar fisikoa indarkeriaz adierazten da eta bi kasutan aztertuko da: bikotekidearen aurka izaten denean (helduen artean) eta seme-alaben aurka izaten denean (nagusitasun-harremanak).

Tratu txar mota horiek gertatzen diren familien baldintzak ere aztergai izango dira gai honetan, baita egoeren errepikapenak ere.

9. gaia

Sexu bereko gurasoz osatutako familiak aztertuko dira gai horretan.

9. Homosexualitatez osatutako familiak

Gero eta ugariagoak dira sexu bereko bikotez osatutako familiak, azken urteotan gai horri lotutako legerian izandako aldaketen ondorioz, hein handi batean. Lege-egoeraren aldaketa horretaz baliatuz, bikote homosexualak modu irekiagoan osatu dituzte beren familiak.

Bikote-mota horien ezaugarriak eta arazo nagusiak mahaigaineratuko dira gai honetan.

Orain arte, seme-alabak dituzten bikote homosexualak emakumez osatuak egon dira. Kasu batzuetan, bi emakume eta berekin eraman dituzten seme-alabek osatzen dituzte familia horiek; beste batzuetan, berriz, familia berriak seme-alabak izatea erabaki eta bi emakumeetako batek izaten du haurra. Gaur egun, ordea, gizonak ere osatzen dituzte familiak: aurreko bikote heterosexualekin seme-alabak dituzten gizonak edo adoptatutako seme-alabak dituztenak.

Gai honetan, familia-mota horien ezaugarri nagusiak aztertzen dira, baita honako gai hauek ere: gizartearen bazterketak familia horiengan duen eragina, gurasoek homosexualitatea onartzeko dituzten arazoak, eta seme-alabentzat beste sexuko eredurik ez izatea.

BIBLIOGRAFIA

- AUSLOOS, G.** (1981) *Systèmes, homoestase, équilibration (essai)*".
Thérapie Familiale 2 lib. 3. zk., 187-203.
- BOWEN, M.** (1979) *Dalla famiglia all'individuo. La differenziazione del se nell sistema familiare.* ERROMA, Astrolabio-Ubaldini. Gazt. Itzulp. De la familia al individuo. La diferenciación del sí mismo en el sistema familiar. Bartzelona PAIDOS, 1991
- BOLWBY, J.** (1969) *Attachment and Loss vol I Attachment.* LONDRES Hogard Press. Gazt. Itzulp. El vínculo afectivo. Bartzelona PAIDOS, 1993.
- BOLWBY, J.** (1980) *Attachment and Loss vol III Loss, Sadness and Depression.* LONDRES Hogarth Press. Gazt. Itzulp. La pérdida afectiva: Tristeza y depresión. Buenos Aires PAIDOS 1990
- CAMPO, C., LINARES, J.L.** *Sobrevivir a la Pareja.* Bartzelona PLANETA 2002.
- CANEVARO, A.** (1982) "*El contexto trigeneracional en terapia familiar*" Terapia familiar 9. zk., 101-118
- FALICOV, C.J.** comp. (1988) *Family Transitions. Continuity and Change over the Life Cycle* COLCHESTER. The Guilford Press. Gazt. Itzulp. Transiciones de la familia. Continuidad y cambio en el ciclo de vida. Buenos Aires Amorrortu Editoreak 1991.
- GOODRICH, T.J. , RAMPAGE, CH. , ELLMAN, B. , HALSTEAD, H. C.** (1988) *Feminist Family Therapy.* H.Casebook NEW YORK. W. W. Norton. Gazt. Itzulp. Terapia familiar feminista. Bartzelona PAIDOS. 1989.
- HOFFMAN, L.** (1981) *Foundations of Family Therapy. A conceptual framework for Systems Change.* NEW YORK, Basic Books Inc. Gazt. Itzulp. Fundamentos de la terapia familiar. Un marco conceptual para el cambio de sistemas. Mexiko D.F. Fondo de cultura económica 1987

-IMBER-BLACK, J. ROBERTS, J. WHITING, R. (1988) *Rituals in Families and Family Therapy*. Gazt. Itzulp. Rituales terapéuticos y ritos en la familia. Bartzelona GEDISA 1991.

-ISAACS, M. B., MONTALVO, B. ABELSOHN, D. (1996) *The Difficult Divorce. Therapy for Children and Families*. NEW YORK. Basic Books, Inc. Gazt. Itzulp. Divorcio difícil. Terapia para los hijos y la familia. Buenos Aires Amorrortu editoreak 1988.

-LINARES, J.L. *Identidad y narrativa. La terapia familiar en la práctica clínica*. Bartzelona PAIDOS. 1996.

-LINARES, J.L. *Del abuso y otros desmanes. El maltrato familiar, entre la terapia y el control*. Bartzelona PAIDOS 2002.

-MADANES, C. (1990) *Sex, love and violence. Strategies for transformation*. NEW YORK Norton. Gazt. Itzulp. Sexo, amor y violencia. Estrategias de transformación. Bartzelona PAIDOS 1993

-MATURANA, H., VARELA, F (1984) “*El árbol del conocimiento*”. Santiago (Txile) O.E.A. (Kulturaz haraindiko Komunikazio Programa) .

-MIKESELL, R.H. , LUSTERMAN, D-D. , Mc DANIEL, S. H. (comp) “*Integrating Family Therapy. Hand book of Family Psychology and Systems Theory*”. WASHINGTON American Psychological Association. 1995.

-MINUCHIN, S (1974) *Families and family therapy*. Gazt. Itzulp. Familias y terapia familiar. Bartzelona GEDISA 1998.

-MINUCHIN, S., FISHMAN, H. Ch. (1981) *Family therapy techniques*. Gazt. Itzulp. Técnicas de terapia familiar. Bartzelona PAIDOS 1984.

-MORIN, E. (1990) *Introduction a la pensée complexe*. PARIS ESF Editeur. Gazt. Itzulp. Introducción al pensamiento complejo. Bartzelona GEDISA. 1994

-**NAPIER, A. , WHITAKER, C.** *The family crucible* NEW YORK Harper and Row Publishers, Inc. Gazt. Itzulp. El crisol de la familia Buenos Aires. Amorrortu Editoreak 1982.

-**PITTMAN, F.** (1989) *Private Lies. Infidelity and teh Betrayal of Intimacy* NEW YORK, W.W. Norton and Company, Inc. Gazt. Itzulp. Mentiras Privadas. La infidelidad y la traición de la intimidad. Buenos Aires Amorrortu Editoreak 1994

-**WATZLAWICK, P. , BEAVIN, J. H. , JACKSON, D. D.** (1997) *Pragmatics of human communication* NEW YORK, Norton. Gazt. Itzulp. Teoría de la comunicación humana. Bartzelona HERDER 1981.

